

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko maiatza

2024ko maiatzean, % 31,8 gehitu ziren sarrerak landa-ostatueta eta % 47,6 Euskal AEko apartamentu turistikoetan

Aterpetxe turistikoetan, bestalde, sarrerak % 18,9 gehitu dira

Euskal AEko **landa-ostatueta**, **2024ko maiatzean**, sarrerak % 31,8 gehitu dira eta gualdiak % 27,3, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera.

Sarreraren kopurua 19.118ra iritsi da, eta gualdiak, berriz, 39.905era.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Maiatza 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	2023/05	2024/05	p.p. *	2024/05	p.p. *
EUSKAL AE	19.118	31,8	39.905	27,3	2,09	2,16	29,2	6,4	34,5	7,0
Estatukoak	12.875	36,5	25.992	21,5	2,02	2,27	-	-	-	-
Atzerritarrak	6.243	23,0	13.913	39,7	2,23	1,96	-	-	-	-
Araba/Álava	3.528	37,3	6.227	17,9	1,77	2,06	18,2	3,1	23,1	3,9
Estatukoak	3.048	56,0	5.368	40,9	1,76	1,95	-	-	-	-
Atzerritarrak	480	-22,0	859	-41,5	1,79	2,39	-	-	-	-
Bizkaia	5.296	29,2	11.309	36,5	2,14	2,02	29,4	9,1	34,2	10,6
Estatukoak	3.441	15,9	7.401	15,8	2,15	2,15	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.855	64,2	3.908	106,1	2,11	1,68	-	-	-	-
Gipuzkoa	10.294	31,3	22.369	25,8	2,17	2,27	34,8	6,2	40,6	5,6
Estatukoak	6.386	41,6	13.223	18,2	2,07	2,48	-	-	-	-
Atzerritarrak	3.908	17,4	9.146	38,8	2,34	1,98	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko maiatzaren aldean % 23,0 gehitu ondoren, atzerriko sarrerak Euskal AEko landa-ostatueta 2024ko maiatzean izandako sarrera guztien % 32,7 izan ziren. Ostatu-gauen kasuan, atzeritar jatorrikoak guztizkoaren % 34,9 dira, aurreko urteko hilabete beraren aldean % 39,7 gehitu ondoren.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko maiatzeko sarreraren urte arteko igoerak % 37,3 izan dira Araban, % 31,3 Gipuzkoan eta % 29,2 Bizkaian. Ostatu-gauen kasuan, igoerak % 36,5ekoak izan dira Bizkaian, % 25,8koak Gipuzkoan eta % 17,9koak Araban.

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,09 egunekoa izan da maiatzean; balio hori 2023ko hil berean izandako 2,16 eguneko batez besteko egonaldia baino txikiagoa izan da. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu

bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta gelen arabera okupazio-mailak ehuneko 6,4 eta 7,0 puntu igo dira, hurrenez hurren, eta % 29,2an kokatu dira plazen arabera neurtuta, eta % 34,5ean gelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko maiatzean 19.904 sarrera izan dira guztira, eta 63.577 gaualdi izan dira. Zifra horiek aurreko urteko maiatzean erregistratutakoekin alderatuz gero, % 47,6ko igoera ikusten da sarreren kasuan eta % 30,0koa gaualdien kasuan.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerek, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Maiatza 2024

	Sarrerek		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	2023/05	2024/05	p.p. *	2024/05	p.p. *
EUSKAL AE	19.904	47,6	63.577	30,0	3,19	3,63	42,1	7,5	71,1	8,5
Estatukoak	10.930	44,8	35.817	31,3	3,28	3,61	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.973	51,2	27.760	28,3	3,09	3,65	-	-	-	-
Araba/Álava	1.168	-15,5	9.523	34,1	8,16	5,14	30,0	8,6	77,9	23,8
Estatukoak	999	-11,1	6.096	24,6	6,10	4,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	168	-34,7	3.427	55,0	20,36	8,58	-	-	-	-
Bizkaia	12.944	57,8	27.121	35,4	2,10	2,44	40,5	6,4	55,9	6,5
Estatukoak	7.172	56,3	14.151	38,0	1,97	2,23	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.772	59,6	12.970	32,7	2,25	2,70	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.792	48,6	26.933	23,6	4,65	5,59	51,7	7,3	83,4	5,1
Estatukoak	2.759	50,2	15.570	28,4	5,64	6,60	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.033	47,1	11.363	17,6	3,75	4,69	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 45,1 eta gaualdi guztien % 43,7 atzerriko bisitariei dagokie, 2024ko maiatzean urte arteko % 51,2ko eta % 28,3ko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia, Euskal AE osoan, 3,19 egunekoa izan da 2024ko maiatzean, 2023ko maiatzean baino txikiagoa. Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 8,16 egunekoa izan da Araban, 4,65ekoa Gipuzkoan eta 2,10 egunekoa Bizkaian.

Euskal AEko plazen okupazio maila % 42,1ekoa izan da, hau da, ehuneko 7,5 puntu gehiago 2023ko maiatzaren aldean. Apartamentuen okupazio mailak ehuneko 8,5 puntu egin du gora, % 71,1ean kokatuz.

Euskal AEko **aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2024ko maiatzean sarrerak % 18,9 igo ziren urte batetik bestera, 28.849 guztira, eta 48.931 ostatu-gau sortu ziren. Bizkaian 28.517 gaualdi izan dira (+%26,9), Gipuzkoan 19.154 (+%11,5) eta, azkenik, Araban 1.260 (+%17,9).

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko aterpetxe turistikoetan. Maiatza 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	m/m-12 (%)	2024/05	2023/05	2024/05	p.p.
EUSKAL AE	28.849	18,9	48.931	20,2	1,70	1,68	46,7	7,1
Estatukoak	10.975	12,5	18.073	4,5	1,65	1,77	-	-
Atzeritarrak	17.874	23,1	30.858	31,8	1,73	1,61	-	-
Araba/Álava	785	10,3	1.260	17,9	1,60	1,50	33,0	8,0
Estatukoak	632	-5,4	815	-20,1	1,29	1,53	-	-
Atzeritarrak	153	252,1	444	832,8	2,90	1,10	-	-
Bizkaia	16.121	30,8	28.517	26,9	1,77	1,82	52,3	10,5
Estatukoak	6.268	25,1	11.058	12,8	1,76	1,96	-	-
Atzeritarrak	9.853	34,7	17.458	37,9	1,77	1,73	-	-
Gipuzkoa	11.943	6,3	19.154	11,5	1,60	1,53	41,2	3,0
Estatukoak	4.074	0,0	6.199	-4,3	1,52	1,59	-	-
Atzeritarrak	7.868	9,9	12.955	21,0	1,65	1,50	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horietako egonaldien batez besteko iraupena 1,70 egunekoa izan da 2024ko maiatzean Euskal AE osoan, eta plazen okupazio maila, urte batetik bestera ehuneko 7,1 puntu igo ondoren, % 46,7ra iritsi da.

Informazio-oharra

ETHren erantzun-tasa % **94,1ekoa** izan da hilabete honetan landa-ostatueta, % 87,3koa turismo-apartamentuetan eta % **84,4koa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62